



**DERIOKO UDALA**

**Exp:2016-CAD-9**

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DERIOKO UDAL ERAIKINAK ETA  
BULEGOAK BARRUALDETIK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO**



**DERIOKO UDALA**

## **I. ATALA**

### **XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK**

#### **1. klausula- Kontratuaren xedea**

Baldintza Teknikoen agiri honen xedea da esleitzea zerbitzu hau: Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko zerbitzua esleitzea. Baldintza Teknikoen agiriaren 1. Eranskina.

Zerbitzu hau ingurumena eta laneko osasuna errespetatzen duten metodoen, praktiken eta produktuen bidez gauzatuko da, eta, bestek beste, hondakinen kudeaketa egokia barne hartuko du.

## **II. ATALA**

### **KONTRATUAREN GARRANTZIA ETA ZABALKUNDEA**

#### **2.1. artikulua: Irismena**

Kontratuaren irismena eta zabalkundea da honako lanak betetzea: Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko lanak egitea. Horiek 1. Eranskinean azalduta daude, baldintza teknikoen agiri honetan ikusita dauden lanen eta aldizkakotasunaren arabera, kontratua indarrean dagoen bitartean izan daitezkeen aldaketei (higiezinak handitzea, aldatzea eta abar) kalterik egin gabe, kontratuaren balore osoaren %10tik gora egiten ez badute aldaketek.

Hala ere, Derioko Udalak eskubidea eta ahalmena ditu kontratistari agintzeko beste higiezin batzuen garbiketa integrala, %10eko gehikuntzara arte, zerbitzua handitzeko beharren aurrean. Zerbitzua aurrez ikusitakoa baino txikiagoa bada, 1. Eranskinean jasota utziko da eta fakturatzeko zenbatekoa txikiagotuko da kontratistarentzat.

Beraz, zerbitzuaren zehar, behar diren berraztertzeak egin daitezke zerbitzuak behar denean izateko (Derioko Udalaren higiezinaren eta instalazioen aldaketengatik), zerbitzua hobetzeko asmoz eta hobetzeko helburuarekin. Udalak bajak edo altak emango ditu zerbitzuan.



## **DERIOKO UDALA**

Kontratuaren balio osoaren % 10 gainditu ondoren, garbiketaren 156 m<sup>2</sup> orduko batez besteko errendimenduaren arabera eta adjudikaziodunaren proposamenean ezarritako unitateko prezioen arabera kalkulatuta, bulego berria garbitzeko prezioa unitateko prezio horietan eta errendimendu berdinean (156 m<sup>2</sup> orduko) oinarrituta kalkulatu da. Adostutako zerbitzuak gutxituz gero, gutxitu behar den zenbatekoa berdin kalkulatu da, betiere baja gertatzen den unea kontuan hartuta.

### **2.2. artikulua: Jardun eremua**

Kontratu honen jardun eremua da: udal eraikinen barruko bulegoak, horien erabilera edozein delarik, eta 1. Eranskinean azaldutakoekin lotuta dauden bulegoak. Inbentarioari dagokion eranskin honetan jarriko dira egingo diren garbiketa-kopurua, akatsengatik sartu ez direnak ere.

Halaber, kontratu honen xedea da: Eranskin horrekin lotuta dauden eraikinen leiho eta beirate guztiak guztiak.


### **2.3. artikulua: Araudi aplikagarria eta erreferentziakoa**

Baldintza agiri honetan adierazten den eta Toki Erakundeei eragiten dien indarreko legeriaz gain, aplikagarriak dira:

- 1985eko apirilaren 2ko Tokiko Araubidezko Oinarrien Legea, eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, Tokiko Araubidezko arloan indarrean diren xedapenak onartzen dituena.
- Sektore publikoan kontratuei buruzko 30/2007 legea, urriaren 30ekoa.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide orokorra onartzen duena.
- Kontratazioa arautzen duten beste edozein xedapenak, bai estatu zein autonomia eta toki mailan, eta toki-eremuan aplikagarriak direnak.

Zuzenbide pribatuko arauak ordezko zuzenbide gisa aplikatuko dira, kontratuaren interpretazioak eta ondorioek eta kontratua betetzeak eta suntsiarazteak sor ditzaketen gaiei erantzuna emateko, aipatutako xedapenen bitartez ezin bada. Dena dela, zuzenbide pribatuko arauak aplikatu arren, ezin daitezke administrazioaren prerrogatibak ahaztu.

Lan horiek egiteaz arduratzen diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileak zergen, lan-harremanen eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan



## **DERIOKO UDALA**

indarrean dauden xedapenak bete behar ditu derrigorrean, eta halakoak bete ezean, Udalak ez du horren erantzukizunik izango.

Kontratatutako zerbitzu guztiek zorrotz beteko dute honakoetan ezarritakoa: Baldintza Teknikoen Agiri honetan, Administrazio Ekonomiko baldintzen agirian kontratua formalizatuko den dokumentu administratiboan eta aukeratutako proposamenean.

### **2.4. artikulua- Baldintza teknikoak**

Kontratatutako zerbitzu guztiek zorrotz beteko dute honakoetan ezarritakoa: Baldintza Teknikoen Agiri honetan, Administrazio Ekonomiko baldintzen agirian kontratua formalizatuko den dokumentu administratiboan eta aukeratutako proposamenean.

1. Plegu honek adierazgarri moduan jaso ditu: ohiko eta ezohiko lan nagusiak, esleipendunari eskatuko zaizkion baldintzak; esleipendunak kontratuaren gaia hobetzeko proposamenak egin baditzake ere, dena den, kontratuaren gaian sartuta dauden udal eraikinak eta bulegoak garbi mantentzeko izango dira.
2. Esleipendunak behar diren baliabideak izango ditu Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrualdetik garbitzeko zerbitzua gauzatzeko. Laguntza moduan azalaren deskribapena errazten da solairuz, garbiketa non egingo den aipatzen. Halaber, lizitazio-aldian eta eskaintzak aurkezteko epe amaitu baino lehen, beharrezko aurrerapenez, bisita egun bat jarriko da, lizitatzailleek eraikin bakoitzaren lokala guztiak ezagutu ditzaten in situ.

Agindutako lanak gauzatzeko beharrezko gailu, makina, tresna eta produktu guztiek beharrezko kalitatea eta ezaugarriak izango dituzte garbiketa bakoitzerako, eta horiek esleipendunak erosiko ditu. Erabiliko diren makinaren konponketa, kontserbazio eta funtzionamenduaren kostuak izango dira esleipendunaren kontura. Urteko, sei hileko eta hiru hileko lanetarako beharrezko makinak ez dira egon behar Udaletxean, baina, makinak horiek esleipendunak jarriko ditu lanak burutzeko.

3. Udalak edozein momentutan kontrola ditzake garbiketaren erabilitako langileak eta horien iraupena, proposamenean adierazitako konpromisoa betetzen den ala ez ezagutzeko. Halaber, gaur zerbitzua ematen duten langileen zerrenda (3. Eranskina) erantzen da non datu hauek agertzen diren: antzinatasuna lanean, kategoria eta zerbitzuan ematen duten ordu-kopurua; hori izango da subrogazioa ondorioetarako, dena den hori egingo da horretan adierazitako baldintzetan. Subrogatuko den garbiketa-kontratari atxikitako langileak adierazita dauden 3. Eranskinean. Langile horien soldata jartzen du Eraikuntzen eta Lokalen Garbiketarako Estatuko Hitzarmen Kolektiboak.



## **DERIOKO UDALA**

Eskaintako prezioak ez dira berrikusiko nahiz eta esleipendunak eta langileek hitzarmenak aldatu badituzte ala hitzarmen berriak egin.

4.- Adjudikaziodunak bera ordezkatzeko pertsona bat izendatu beharko du; pertsona horrek kontratu honen jardueraren inguruko ezagutza egokiak izan behar ditu, bai eta ebazpenak hartzeko ahalmen nahikoak ere. Halaber, zerbitzuak emateko kontratatzen diren langileen hasierako zerrenda eta geroago zerrendan egiten diren aldaketak jakinarazi beharko dizkio Derioko Udalari, behar izanez gero, lantokietan sartzeko beharrezko baimena, giltzak, segurtasun gakoak emateko.

Langileren bat kaleratuz gero, adjudikaziodunak baimen horiek jaso beharko ditu Derioko Udalaren Zerbitzu Teknikoari emateko, eta zerbitzu horrek eskubidea izango du egiaztatzeko kontratatu den zerbitzuaren ustiapeneko jardueretan aritu diren langileen kopurua bat datorrela enpresa adjudikaziodunaren proposamenean jasotakoarekin; horretarako, Udalak langileen sarrera-, irteera- eta egonaldi-agiri bat ezar dezake, langileak kontrolatzeko. Oporrak, baimenak, erretiroa edo beste edozein arrazoi dela-eta zerbitzua ematen duten langileak ordeztu dituzten langileen berri eman beharko zaio Udal arduradunari, 48 ordu lehenago gutxienez, eta zerbitzua eman ohi duten langileen betebeharrak berdina izango dituzte, ezarritakoa betetzeko.

Zerbitzuen kalitatea eta kopurua kontuan hartuta, kontratazio honetarako baldintzak gutxienekoak dira, eta, beraz, lizitatuak hobetu ahal izango dituzte, udal eraikinen garbitasun, higiene eta itxura onaren mesedetan bada, behintzat.

Halaber, enpresa adjudikaziodunaren kontura geratzen da honako hauek hornitu eta berriro jartzea: komuneko papera, eskuak lehertzeko papera, xaboi likidoa, euritakoak zorroan sartzeko Kultur Birikako eraikinean dagoen makinaren poltsak, 1 eranskinean zerrendatutako eraikin guztietako sarrerako alfonbrak, eraikin horietako komunetako aire-goagarriak eta bakterizidak eta komun eta aldageletako kontsumigarriak. Enpresa adjudikaziodunaren kontura geratzen da produktu horiek guztiak jartzea. Plegu honetan, garbiketa-zerbitzuaren ezaugarriak eta zerbitzua emateko gutxieneko modua adierazten dira.

Garbiketako produktuek biodegradagarriak izan eta ingurumena babestu behar dute. Horrelako produktuek beti egon behar dute udal lokaletan, eta hala egiaztatu beharko da agirien bidez. Agiriok Ingurumen Arloan aurkeztu behar dira urtero.

.

Paperontzi, zaborrontzi eta abarretako hondakinen biltzea, hondakinak birziklatzeko sailkatzea eta dagokion edukiontzira botatzea garbitzailearen eginkizunak izango dira. Hondakin horiek udal eraikin edo bulego bakoitzetik hurbilen dagoen edukiontzian utzi beharko dira.



## **DERIOKO UDALA**

Kontratastak kontratatu diren lanak behar bezala egiteko eta egon litezkeen akatsen erantzukizuna du; halaber, lanak egin bitartean langileei, materialari edo hirugarrenei gertatzen zaien edozein istripuren erantzulea da.

### **2.6. artikulua- Gaur eguneko eta etorkizuneko eraikinak**

Adjudikaziodunak, lizitaziora aurkeztu izateagatik, derrigorrean onartu behar du kontratuaren helburuko eraikinen egoera, eta ez du eskubiderik izango konpentsazioa eskatzeko, kontratuaren betebeharrak zehatz-mehatz betetzeko ahalegin berezia egin behar badu ere.

Bestalde, **1 eranskinean** ez dauden eraikin berriak edo eskuratutakoak, eta Derioko Udalaren eskuetan geratzen diren eraikinak ere kontratuaren barruan sar daitezke, Udalak egokituz jotzen badu, eta hori ez da kontratu-aldaketatzat joko, kontratuaren balio osoaren % 10 gainditzen ez bada.

Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, beharrezkoa izango da kontratua gauzatzeko arduradunak jakinarazpen bat egitea eta obra eta zerbitzuetako zinegotziak oniritzia ematea. Zentroko garbiketaren ohiko prezioa garbiketaren batez besteko errendimendua (156 m<sup>2</sup> orduko) eta lizitatzailleek aurkeztutako unitateko prezioak aplikatuz zehaztuko da.

### **2.6. artikulua- Espazio-eremuaren aldaketa**

Adjudikaziodunak kontratu-eremuaren handiagotzeak onartu behar ditu, bai udal eraikin berriak gehitzeagatik, bai hasierako zerrendan ez zeudenak sartzeagatik, betiere Derioko Udalak horrela erabakitzen badu eta kontratuaren zenbatekoaren % 10eko legezko mugaren barruan badago.

%10eko muga gaindituta, bulego berrien garbiketaren prezioa hileroko fakturan agertuko da.

### **2.7 artikulua- Lanak antolatzea**

Kontratitzen diren zerbitzu guztiak emango dira Baldintza Teknikoen Pleguan eta Klausula Administratibo Berezien Pleguan ezarritakoa zorrotz betez, eta kontratua formalizatzeko administrazio-agirian eta hautatutako eskaintzaren edukian ezarritakoa betez.



## **DERIOKO UDALA**

Hori dela eta, lizitatzailleek, aurkeztu behar duten azterlan teknikoaren barruan, eskaintzen diren prestazio guztiak zehaztu behar dituzte, eta honako hauek definitu: prestazioak gauzatzeko modua, edukia, irismena eta langile-taldeen prestakuntza, bai langileei dagokienez, bai material eta tresna lagungarriei dagokienez. Hori guztia eskakizun zehatzenen arabera, ahaztu gabe plegu honetako eskakizunak gutxienekoak direla.

Plegu honen helburuko garbiketa-zerbitzua ematean, kontratuaren zuzendaritzak agindua eman dezake kontratatu diren zerbitzuak berriro antolatzeko, beharrezana dagoela modu egokian justifikatuta.

### **2.8.artikulua- Arreta iraunkorra**

Adjudikaziodunak telefono bidezko arreta-zerbitzu iraunkor bat izango du, eta gainera, egunero eta etengabe harremanetan egongo da udal zerbitzu teknikoarekin.

### **2.9. artikulua- Lanak**

Enpresa adjudikaziodunak derrigorrean egin behar ditu Derioko Udalak agintzen dizkion lanak, nahiz eta adjudikazioaren lan espezifikoak ez izan. Hala ere, bi baldintza hauek bete beharko dira: bata, kontratatutako operazioen baten antzekoak izan beharko dute, eta, bestea, langileek beren lan-kategoriaren arabera egin behar dituzte lanak.

Kontratuaren balio osoaren % 10 gainditu ondoren, bulego berrien garbiketalanen prezioa hileroko fakturan agertuko da.

Lanen kostua kalkulatu da garbiketaren 156 m<sup>2</sup> orduko batez besteko errendimenduaren arabera eta adjudikaziodunak proposatutako unitateko prezioen arabera. Lanak egin aurretik onetsi beharko du Derioko Udalak.



**DERIOKO UDALA**

### III. ATALA

#### BALDINTZA TEKNIKOAK PRESTAZIOAK GAUZATZEKO

##### 3.1. artikulua- Garbitu behar diren lokalak eta bulegoak

Kontratu honen helburuko eraikinen garbiketarako eraikin barruko gelak hartzen ditu barne: gelak, bulegoak, aretoak, gimnasioak, liburutegiak, kontsultategiak, tailerrak, pasabideak, atondoak, komunak, sotoak, ganbarak., eta abar

Garbiketa-lanetan sartzen dira, baita ere, aurretik aipatutako geletako altzarien apaingarriak edo elementu osagarriak, eta **1 eranskinean** jasotako eragiketarako egin behar dira, bertan jasotako maiztasunarekin.

Orientazio moduan, elementu hauek aipatzen dira: altzariak, argi-puntuak, ate eta leihoak (markoak barne), ate- eta leiho-zangoak, kristalak, gortinak, pertsianak; konketak, komunontziak, pixatokiak, dutxak, berogailuak, sabaiak, hormak, behegainak, alfonbrak eta moketak, liburuak, metalak, eskailetako karelak, eskudelak, apaindura elementuak, barruko patioak, espazio irekiak, eta abar.

**1 eranskinean** aipatzen diren eraikinen azalera orientagarriak dira, eta lizitatuak onatzen joko dituzte, berdintasunezko balorazioari ekiteko.


Eraikin nagusiak izen bakar bat badu ere, garbitu behar diren azalaren artean sartzen dira udal esparruaren barruko eraikinak, hau da, ikastetxe berean daude eskola bera eta salbuesitako eraikinak, esaterako, eskolaurreko eraikina, gimnasioa edo barrakoiak, **1 eranskinean** jasotzen den bezala.

##### 3.2. artikulua- Lanen antolapena

Adjudikaziodunak proposamenean jasotako garbiketa-lanak egiteko ardura du; lan horiek ezin daitezke izan **1 eranskinean** jasotzen direnak baino gutxiago, izaerari edo maiztasunari dagokienez

Adjudikaziodunak antolakuntzako neurri egokiak hartu beharko ditu beti, langile-taldean lana optimizatzeko egokiak.





## **DERIOKO UDALA**

Kontratastak bere lana garatzeko, proposamenean jasotzen diren makina, baliabide lagungarri eta garbiketa-produktu egokiak erabiliko ditu, kontuan hartuta garbitu beharreko paramentuen, altzarien eta osagarrien ezaugarri materialak eta testurakoak. Kontratastaren kontura geratzen da makinak eta baliabide lagungarriak mantentzea, konpontzea edo ordeztzea, erabiltzeko moduan egon daitezen beti; halaber, garbiketako produktuak berriro jartzea kontratastaren kontura geratzen da.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak aukeratzen duen antolaerak irizpide hauek bete beharko ditu:

- a) : Desinfekzioa, egin behar bada, ahalik eta sakonena izango da, eta desinfekzio maila altua bermatzen duten prozedura eta sistemak erabili beharko dira; horretarako, kontuan hartu behar da zenbat pertsonak erabiltzen dituzten instalazio publikoak, batez ere, konketak, komunak eta dutxak.
- b) Bulego, areto, atondo eta beste leku komun batzuen garbiketa mantentzekoa izan beharko da, itxura- eta kalitate-egoera ona bermatzen duena, beste erabiltzaile batzuek erabil dezaten.
- c) Zentroak behar bezala garbitzeko behar diren baliabideak erabiliko dira beti: garbiketako produktu eta tresnez hornitutako orgak, makinak, eskailerak, aldamiok...
- d) Material desberdina erabiliko da bulego, areto, atondo, pasabide eta beste alde komun batzuetarako, eta komun, dutxa eta konketetarako.
- e) Ebakuazio-bideak diren ate eta pasabideek oztoporik gabe egon behar dute, hau da, garbiketako produktu eta tresnarik gabe. Elementu horiek ezin daitezke igogailuetan jarri, baldin eta igogailuaren ohiko funtzionamendua eragozten bada.
- f) Zerbitzua emateko erabiltzen diren garbiketa-produktu guztien kalitatea edo ezaugarriak enpresa adjudikaziodunaren proposamenean jasotakoak direla egiaztatzeko, edo horren inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko, Derioko Udalaren zerbitzuek produktuen osakerari buruzko egiaztagiria nahiz osasunekoak aurkez ditzan eska diezaiokete enpresa adjudikaziodunari; egiaztagiri horiek fabrikatzaileak emango ditu, eta, halako egiaztagiririk edo beste agiri osagarririk ez badago, laborategi homologatu batek egingo du analisia, eta kostuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

### **3.3. artikulua- Garbiketa lanak zehaztea**

Derioko udal eraikinen barruko garbiketa-zerbitzuaren kontrataziorako plegu honek ondorioak sor ditzan, garbiketa-mota hauek ezartzen dira:



## **DERIOKO UDALA**

- a) Ohiko garbiketa edo mantentzekoa
- b) Garbiketa orokorra (1 eranskinean jasotako maiztasunaren arabera)
- c) Garbiketa berezia

### **3.3.a. Ohiko edo mantenamenduko garbiketa**

Adjudikaziodunak garbiketatzat jotzen dituen lanak dira. Lanen maiztasuna ezin daiteke inola ere izan **1 eranskinean** ezarritakoa baino beheragokoa izan, eta erabiltzen den metodologia ezin daiteke izan plegu honetan ezarritakoa ez den beste bat, kontratazioko organoak besterik erabakitzen ez badu, behintzat.

Adjudikaziodunak egin behar duen garbiketa estandarren barruan lan hauek daude gutxienez:

- Zoladura-mota guztien garbiketa, ekorketa hezearen bidez edo, alfonbra bada, xurgagailua erabiliz.
- Zoladuraren garbiketa, alfonbran izan ezik, higitzen duen substantzia kimikorik ez duten produktu egokiekin eta zikinkeraren aurkako produktuekin.
- Parket-behegainaren garbiketa.
- Hautsa kentzea altzarietan, erlaitzetan eta bulegoko makinetan (ordenagailuak, inprimagailuak, kalkulagailuak, fotokopiagailuak, etab.).
- Paperontziak biltzea eta garbitzea, eta hondakinak dagokion birziklatzeko ontzira botatzea. Langileak eraikinetik hurbilen dagoen edukiontzira eraman beharko ditu sailkatutako hondakinak.
- Komunen garbiketa eta desinfekzioa, eta emakumezkoen komunetako higiene-educiontzia (konpresak botatzeko zakarontziak) egiaztatzea, biltzea eta berriz jartzea.
- Euritakoak zorroan sartzeko Kultur Birikako eraikinean dagoen makinaren poltsak egiaztatzea, garbitzea, hornitzea eta berriro jartzea.
- Komuneko papera, xaboi likidoa eta eskuak lehertzeko oihala egiaztatzea, garbitzea, hornitzea eta berriro jartzea.
- 1 eranskinean zerrendatutako eraikin bakoitzeko sarreran dauden alfonbrak (eskoletan 3 eraikin daudenez, guztira 11 alfonbra hornitu behar dituzte); adjudikaziodunak zerbitzua hastean hornitu beharko ditu alfonbrak, eta gero, haiek egiaztatzeaz, garbitzeaz, hornitzeaz eta berriro jartzeaz arduratu beharko da.
- Alfonbratxoak egiaztatzea, hornitzea eta berriro jartzea.



## **DERIOKO UDALA**

- Zoruak, hormak, igogailuetako ispilua, komunak eta abar garbitzea.
- Lokalak aireztatzea eta aire-gozagarria erabiltzea, une bakoitzean aukeratzen den usaina duena.
- Apalategiak, artxiboak eta armairuak garbitzea.
- Hautsa kentzea berogailuetan eta aire-makinetan.
- Ate eta markoak garbitzea.


### **3.3.b. Garbiketa orokorra**

Garbiketa orokorra hau da: garbiketa sakona, zoru, horma, argi-puntu eta abarren egoera ona berriz lortzea helburu duena. Lan horiek **1 eranskinean** eraikin bakoitzerako ezarritako maiztasunaz egingo dira, eraikinen higieena eta osasungarritasuna bermatzeko arrisku handieneko egoeran egon daitezkeen erabiltzaileei, eta, egin ohi ez diren arren, egin behar diren garbiketa-lanen beharrianagatik.

Garbiketa-mota horri dagokionez adjudikaziodunak egin behar dituen lanak hauek dira:

- Oihalezko gortinen desmuntaketa, garbiketa, lisaketa eta muntaketa.
- Zoladuren garbiketa, distira-ematea, kristalizatzea eta leunketa.
- Metalen distira-ematea.
- Sabai eta hormen garbiketa.
- Zoru bigunen desugerketa eta ezkoztadura.
- Zoru gogorren kristalizatzea.
- Emultsio esku bat ematea eskaileretako mailagain eta mailarte aldeetan.
- Komunetako tresna sanitarioen garbiketa eta desinfekzioa, eta komunetako eta aldageletako horma-estalduren garbiketa.
- Altzarien garbiketa sakona, materialaren arabera (egurra, metala, zuntzak, kristala, oihala...) dagozkion produktuak erabiliz.
- Ate, balkoi, kontraleiho, pertsiana eta markoen garbiketa.
- Lanpara, etengailu, argi-puntu, pareta-argi eta abarren garbiketa.
- Altzarien kanpoko garbiketa eta goitegien garbiketa.

Kristalak **5 eranskinari** erantsitako taulan jasotako maiztasunaz garbitu beharko dira.



## **DERIOKO UDALA**

Lan horiek egingo dira Derioko Udalaren Zerbitzu Teknikoak ezarritako egunetan, ahal bada, lokalak hutsik daudenean, nahiz eta jaieguna izan. Eskoletako eraikinetan, Kultur Birikan, Haur Eskolan, Larrabari baserrian eta Gaztelekun, tratamendu hori, ahal izanez gero, opor garaian edo instalazioa itxita dagoenean egingo da. Gainerako eraikinetarako (udaletxea, Nagusien Etxea eta komun publikoak), Derioko Udalaren Zerbitzu Teknikoak zehaztuko du noiz egin.

### **3.3.c. Ez ohiko garbiketa**

Derioko Udalak eska dezake aparteko zerbitzuak egiteko, inguruabar bereziak gertatzen direnean, hala nola, txokoaren erabilera, obrak, bulego berriak eta eraberrituak, ezohiko gertakariak (suteak, adibidez), inaugurazioak, hauteskundeak, jaiak,

Lanen helburua garbiketa osoa lortzea da, bai kanpotik, bai barrutik, behegain-mota bakoitzaren tratamendu espezifikoa barne.

Adjudikaziodunak derrigorrean egin beharko ditu Derioko Udalaren Zerbitzu Teknikoak agindutako garbiketa-lan bereziak, eta prezioa adjudikaziodunaren eskaintzan ezarritako unitateko prezioen arabera eta garbiketaren batez besteko errendimenduaren (156 m<sup>2</sup> orduko) arabera kalkulatu da

Adjudikaziodunak derrigorrean egin beharko ditu Derioko Udalaren Zerbitzu Teknikoak agindutako garbiketa-lan bereziak, eta prezioa adjudikaziodunaren eskaintzan ezarritako unitateko prezioen arabera eta garbiketaren batez besteko errendimenduaren (156 m<sup>2</sup> orduko) arabera kalkulatu da

## **3.4. artikulua- Garbiketaren metodologia**

### **3.4.a. Barrualdeko zoladuraren garbiketa**

Zoladuren mantentzeari arreta berezia jarriko zaio, bulego edo zentro bateko zikinkeria gehiena han pilatzen delako. Hori dela eta, behegain mota bakoitzari tratamendu egokia eman behar zaio, ahal izanez gero, eta, horrela, geroagoko garbiketa errazteaz gain, higiene-maila handiagoa eta itxura distiratsua lortuko da.

Oro har, eraikinen barruan ekorketa hezea erabiliko da, ohiko ekorketaren orde.

Terrazoetan ez da disoluzio alkaliorik edo azidorik erabiliko, terrazoaren gainaldea hondatu eta distira galaraz dezaketelako. Oro har, detergente neutroak erabiliko dira.



## **DERIOKO UDALA**

Marmolezko behegainak trinkoagoak dira, hau da, ez dira hain porotsuak eta xurgagarriak. Saiatuko da material alkalino edo azidoak ez erabiltzen, marmola hondatzen dutelako eta itxura motelagoa ematen diotelako.

Jende asko igarotzen den lekuetan, zoladuren tratamendua sarriago egin beharko da, eta aldian-aldian aplikatuko dira polimeroen emultsioak, zoladurak sakon garbitu eta gero.

Eskailerak ezkoztatuko dira ezko gogor irristagaitzarekin; dena den, beste gainazaletan kalitate berdineko produktu irristagaitzena aukeratuko da beti.

Beste zoladura gogor batzuk (granitoak, gresa, etab.) xurgatuko dira edo bestela, ekorketa hezea aplikatuko da egunero. Mantxak edo itsatsitako zikinkeria kentzeko, urez garbituko dira zoladura horiek.

Hormigoizko zoladuretan, terrazo edo marmolezko behegainetan erabiltzen diren neurri berdinak aplikatuko dira

Gresezko zoruetan ez da azidorik erabiliko, juntadurak kaltetzen dituelako.

Oro har, zoladuren mantentzerako ez da produktu azidorik erabiliko, gainaldea kaltetu dezaketelako. Zoladura guztietan, urez garbitu aurretik, hautsa eta zikinkeria guztia kenduko da mopaz, eta ahalik eta lehorren utziko da. Ura detergenteaz eta/edo desinfektatzaileaz nahastuta erabili behar da beti.

Zoladura sintetikoak, adibidez, linolioa, sintasola, PVC eta beste deribatu batzuk, bi modutara tratatu daitezke: batetik, urez sakon garbituko da makina birakaria erabiliz, eta gero, emultsio bat aplikatuko da zorua babesteko eta distira emateko; bestetik, Spray metodoa erabiliko da abiadura handiko makina erabiliz, horrek eragiketa bakar baten bidez garbitu eta distira ematen duelako. Zoladura horien eguneroko mantentzea ekorketa hezeaz egingo da, eta, gero, mantxak geratzen badira, urez garbituko da.

Askok higatu den eta garbiketa asko izan dituen linolioa oso-oso porotsua da eta beti-beti zigitatu behar da. Garbikari alkalino gogorrek kolorea eta testura aldarazten diote eta horregatik ekidin behar dira.

Asfalto-baldosa petroliozko material bat da, eta, beraz, ez da disolbatzaile edo koipegabetzaile gogorrik erabili behar, material hori bigundu eta hondatu ahal dutelako.

Base disolbatzailea duten ezkoak ez dira inoiz erabili behar (ezko-ore gehienek izaten dute base hori). Ezkoak eta akaberak erabiliko dira bakarrik urezko base emultsionatzailea badute.



## **DERIOKO UDALA**

Biniloa nahiko geldoa da eta gainera isuri edo erabil daitezkeen material gehienek ez diote eragiten. Hala ere, disolbatzaile gogorak ez erabiltzea gomendatzen da. Biniloa ez da oso material porotsua, baina urratu egiten da eta distira berehala kentzen zaio, argizarizko geruza batekin edo akabera sintetiko batekin babesten ez bada.

Gomazko lauzetan, base disolbatzailea duten disolbatzaile eta ezkoek eraso egiten diete berehala, asfaltozko geruzari bezalaxe. Ez dira inoiz erabili behar base disolbatzailea duten disolbatzaile eta ezkoak (ezko-ore gehienak).

Egur, parket do kortxozko zoladuretan, ezkoak aplikatuko dira base disolbatzailean (urik ez), gainazal horiei babesa eta distira ematen dietelako. Geroagoko mantentzea mopa lehorraz eta hautsa harrapatzeko produktuez egingo da. Gainera, ezkoa emateko makina elektrikoa ere erabil daiteke aldian-aldian.

ororik gabeko egurrezko zoruetan (gainazal lakatua, bernizatua edo plastifikatua) mopa erabiliko da, apur bat bustitako trapu batekin. Hilero, zoruatarako egokia den ezkoa aplikatuko da.

Makina xurgagailuak erabiliko dira alfonbra, moketa, tapizeria eta bestelako elementuetatik hautsa kentzeko. Halaber, mantxaren bat badago, orban-kentzeko espezifikoekin kenduko da, alfonbra edo moketaren osaera kontuan hartuta. Produktu bakterizidak ere erabiliko dira alfonbra eta moketetan. Horretaz gain, urtean behin gutxienez, ehun-zoladuren garbiketa sakona egingo da, shampomat metodoaz edo injekzio-erazketa makinaz.

### **3.4.b. Hormak eta sabaiak garbitzea**

Beharrezkoa den guztietan, barruko hormak garbituko dira, gehienez 3,5 metroko altueraraino, eta sabaiak, erlaitzak, moldurak eta antzeko elementuak ere bai, baliabide egokienak erabiliz

Hormak garbikorrak eta ez garbikorrak izan daitezke. Gaur egun, pintura gehienek aglutinatzaile sintetikoak erabiltzen dituzte; pintura mota horiekin, ura erabil daiteke gainazaletan itsatsitako zikinkeria eta mantxak kentzeko.

Horma ez garbikorretan mopa lehorrak eta hautsa harrapatzen duten produktuak baino ez dira erabiliko, eta ez dira baieta hezeak erabiliko

baiak, erlaitzak, moldurak, kasetoidurak eta abar ile biguneko eskuila xurgatzaileaz garbituko dira, eta, gainera, eskuilak erabat garbi egon behar dira garbiketari ekin aurretik. Igeltsuzko sabai zulatuetan edo xafla fonoabsorbatzaileetan, hauts bihurtutako likidoaren proiektzio sistema erabiliko da, eta horren ondoren, profileria sakon garbituko da.



## **DERIOKO UDALA**

### **3.4.c. Metalak garbitzea**

Ur berotan eta xaboi-disoluzio batean hezetutako trapu leun batez garbituko dira, eta trapu leun eta absorbatzaile batez lehortuko. Inoiz ere ez dira erabili behar altzairuzko belakiak, trapu latzak eta disoluzio urragarriak. Gehiegizko zikinkeria, beharrik izan gabe, pilatu den tokietan, edo oxido-seinaleak edo –mantxak agertu diren tokietan, % 10eko sodio-nitratoko disoluzioan hezetutako trapu batez garbitu ahal da, eta gero krema zuritzaile bat eman; azkenik, oxido-mantxetan gogor igurtzi beharko da. Amaitzeko, uretan pasatu eta trapu lehor, leun eta garbi batez sikatu behar da

### **3.4.d. Kristalak, gortinak eta pertsianak garbitzea**

Kristalak garbitzeko detergente neutroak edo kristal-garbigarriak erabili behar dira, **5 eranskinean** ezarritako maiztasunaz. Gainazal horiek sarri mantentzeko behar diren tresnak eta kristal-garbigarriak erabili behar dira (gomazko ezpainak, zabalgarriak, eskailerak, etab.).

Pertsianetan, aldian-aldian, hautsa kendu beharko da, baldin eta pertsianak erraz iristeko modukoak badira

Urtero, detergente neutroaz garbituko dira pertsianak, eta kasuaren arabera, presio- edo lurrun-makinak erabili ahal izango dira.

### **3.4.e. Eskudelake ta barandak garbitzea**

Eskaileretan eta kareletan, metalezkoak ez diren eskudelak eta barandak trapu leun batez garbitu behar dira. Kontuan hartuta amaierako akabera berniza edo pintura den, argizari likidoak erabil daitezke bernizadura bada.

### **3.4.f. Altzariak eta ekipo informatiboak garbitzea**

Altzari eta osagarri guztiak arreta handiz tratatu behar dira, mantxak eta kolperik ez egoteko eta makina eta garbiketa produktuekin urraturik ez izateko.

Porotsuak ez diren egurreko gainazaletan (laka edo plastifikatua) baieta bat erabiliko da, detergente anioniko eta urezko disoluzio baxu batean bustitakoa. Horren ondoren, argizari likidoko edozein produktu erabiliko da, argizari natural, begetal edo hidrokarburoetatik eratorritako mota ertaineko argizariaz prestatutakoa. Egurreko gainazal porotsuetan, hautsa apur bat bustitako baieta batekin kenduko da, eta horren ondoren, argizarizko prestakin bat erabiliko da.



## **DERIOKO UDALA**

Gainazal sintetikoetan ez da gantz edo argizarizko produkturik erabiliko (ohiko sprayak), baizik eta detergente arinak. Kontu handiz garbituko dira egunero, gamuza batekin Informatikako ekipoen kanpoaldea uretan eta detergente anionikoan (disoluzio baxua) apur bat bustitako baieta batez garbituko da. Inola ere ez da likido tanta bat ere baietatik erori behar.

Monitoreen pantailak eta iragazkiak aldian-aldian garbituko dira uretan diluitutako alkoholaz, % 75eko proportzioan (3 zati alkohola, eta zati bat ura).

### **3.4.g. Argi puntuak garbitzea Limpieza de puntos de luz**

Garbiketa-lan horietan hautsa kendu behar da lanpara, fluoreszente, bonbilla, ispilu-pantaila eta abarretan, aparatuak desmuntatu gabe. Horretarako, elementu egokiak erabili behar dira, esaterako, luma-eskuila, baieta...

Pantaila, lanparak eta abar, sakon garbitu behar direnean, desmuntatu eta lurrean edo lan-mahaian utzi beharko dituzte Udalak izendatutako langileek. Elementuok garbitu eta gero, langile horiek berriro muntatu beharko dituzte. Kontratua gauzatzeaz arduratzen den pertsonak koordinatuko ditu lan horiek.

### **3.4.h. Komun publikoak garbitzea eta horien mantenamendua**

Adjudikaziodunak beharrezko jarduketa guztiak egingo ditu **1 eranskinean** zerrendatutako komun publikoak garbi mantentzeko eta desinfektatzeko, eta horretarako, Udal Zerbitzu Teknikoek emandako jarraibideak bete beharko dituzte.


Adjudikaziodunak, une oro, udal zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak bete beharko ditu, eta kontratua gauzatzeaz arduratzen denari guztiaren berri eman beharko dio

### **3.4.i. Bainugelak, dutxak, komunak eta sanitarioak garbitzea**

Arreta berezia jarriko zaio komuna (dutxak eta bainuontziak), komunontzi, konketa, zaborrontzi eta abarren garbiketari. Lixiba, urratzaile kloratoak eta, aldian-aldian, detergente azidoak erabiliko dira jatorri mineraleko zikinkeria kentzeko.

Lixiba eta horrelako desinfektatzaileak aurretik ezarritako kontzentrazio egokietan erabili behar dira beti, neurri dosifikatzaileak erabilita.





## **DERIOKO UDALA**

### **3.4.j. Artxihoak, sotoak eta ganbarak garbitzea**

Espedienteak, agiriak... modu egokian gordetzen diren tokiari artxibategia deritzo. Artxibategietan behegain osoa eta hutsik dauden horma eta apalak garbituko dira. Agiriak eta kutzak gainetik garbituko dira, dauden tokietatik mugitu gabe.

. Sotoak artxibategiak bezala garbituko dira.

Irigarriak diren eta erabiltzen ez diren ganbarak, sotoak eta teilatupeko aldeak urtean behin gutxienez garbitu behar dira.

### **3.4.k. Barrualdeko eta kanpoaldeko patioak**

Lo **eranskinean** zerrendatutako barruko eta kanpoko patioak (argi-patioak) eranskin horretan bertan ezarritako maiztasunaz, gutxienez, ekortuko dira.

### **3.4.l. Kanpoaldeko paperontziak garbitzea eta desinfektatzea**

Patioetan, kanpoko aldeetan eta ekitaldi jendetsuak egiten diren tokietan kokatutako paperontziak egunero gutxienez garbituko dira, eta hamabostean behin gutxienez desinfektatu.



**DERIOKO UDALA**

## IV. ATALA

### ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK

#### 4.1. artikulua- Betekizun orokorrak

Kontratastak ahal duen guztia egin behar du kontrata honen helburuko garbiketa-zerbitzuaren lanak ondo garatu daitezen, eta Derioko Udalaren zerbitzu teknikoek agintzen diotena bete beharko du.

Kontratista adjudikaziodunak, **2. artikuluan** zehazten diren lanen jakinarazpenez gain, estatistika eta kontrolerako Derioko Udalak eskatzen dizkion datuak, parteak eta egiaztagiriak ere eman beharko ditu, kontrata eta zerbitzua bera ondo gara daitezen

Era berean, **1. eranskinean** zerrendatutako udal eraikin eta bulegoetako kalteak jakinarazi beharko dizkio Zerbitzu Teknikoari, ahal izanez gero, baliabide grafikoen bitartez

Kontratastak kontratatutako zerbitzuak osotasunean betetzeko erantzukizuna du; beraz, ezin izango ditu eman daitezkeen hausteen justifikazio gisa alegatu, langileekiko edo hirugarrenetik harremanetatik eratorritakoak. Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren barneko elementu guztiak ikuskatu beharko ditu, eta bere erantzukizuna izango dira edozein anomalia, etab. detektatzea eta horiek garaz ez detektatzeak eratorritako ondorioak. Enpresa kontratastak zuzendu beharko ditu anomaliak, pleguan jasotakoarekin bat eta Udalak errekerimendurik egin beharrik gabe.

Zerbitzu honen helburuko lan batzuk berehala egin behar dira, inolako atzerapenik gabe. Enpresak lanak egiteko epea luzatzeko eska diezairoke Udalari, modu arrazoituan, eta eskaera hori egiten badu ere, lanak amaitzeko epea ez da etengo.

Arlo horietako edozein bete ezean, Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango du. Adjudikaziodunak bere langile edo enplegatuekin dituen betebeharrak ez betetzeagatik edo kontratuaren prestazioak gauzatzeak eragin ditzakeen kalteengatik gerta daitezkeen ondorioen erantzukizunik ez du izango Udalak, kontratastak baizik

Adjudikaziodunak derrigorrean bete behar ditu indarreko legeriak ezartzen dituen lan-betebeharrak, hain zuzen ere, arlo hauetan: soldatak, gizarte segurantza, lan-istripuak, laneko puntualtasuna, prestakuntza, segurtasuna eta higiena...



## **DERIOKO UDALA**

Adjudikaziodunak Udalaren Zerbitzu Teknikoak jarduketa, prozedura, material, produktu, entsegu eta abarri buruz eskatzen dizkion txostenak aurkeztu behar ditu; txosten horiek, jakina, lan egin behar diren lanekin zerikusia izan behar dute.

### **4.2. artikulua- Kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistema integratua**

Lanak kalitate-, ingurumenaren babes- eta langileen segurtasun-irizpide onekin egiten direla bermatzeko, lizitatzailleak dagozkion ziurtagiriak izan behar ditu indarrean; ziurtagiriak egiaztatutako enpresa batek emandakoak eta arau hauei buruzkoak izan behar dira:

- ISO 9001
- ISO 14001

### **4.3. artikulua- Larrialdi eta emergentzia zerbitzuak**


Larrialdi-zerbitzua mantentze-zerbitzuak berehala ematen dituen zerbitzua da, adjudikaziodunaren irizpideak ezarritakoaren arabera. Larrialdi-motak zehazten du zerbitzua eta Derioko Udalak ontzat eman behar du.

Adjudikaziodunak harremanetarako telefono zenbaki bat eman behar du, larrialdietan berarekin kontaktuan jartzeko, asteko edozein egunean eta egunean 24 orduz. Adjudikaziodunak jarduteko betebeharra du, beharrezkoa den guztietan.

Enpresak arduradun bat jarriko du Derioko Udalaren esku (5.1.1 artikulua), eta arduradun horrek adjudikaziodunaren ordezkari gisa jardungo du; gainera, egunean 24 orduz aurkitzeko moduan egon behar du, larrialdietan erantzun egokia eman dezan eta egoera behar bezala kudeatu dezan.

Adjudikaziodunak jardun beharko du larrialdi zerbitzuetan, eguneko 24 orduz, asteko egun guztietan, asteburuak eta jaiegunak barne, eta gainera, Udalak ez du horren kostu ekonomikorik bere gain hartu behar. Beraz, lizitatzailleek aurreikusi beharko dute zerbitzuetik kanpoko zenbat langile dituzten larrialdietan edo unean uneko beharrezanetan lan egiteko prest, ohiko lan-ordutegitik kanpo. Horrek ez dio Udalari kostu ekonomikorik ekarriko.

Larrialdi zerbitzuetan eta salaketetan esku hartzen ez badute, enpresa adjudikazioduna bakarrik izango da ondorioen erantzulea, eta falta larria izango da



## **DERIOKO UDALA**

### **4.3.1. Lan aginduak**

Ohiko garbiketa edo garbiketa orokorreko programatik ateratako lanak egiteko, Derioko Udala harremanetan jarriko da adjudikaziodunaren ordezkariarekin, telefonoz, faxez edo emailaz, lan aginduak azaltzeko: lanen deskribapen zehatza, lanen kokalekua, larrialdia eta hasiera- eta amaiera-data.

### **4.4. artikulua- Zaintza**

Oro har, kontratu honetako udal eraikin eta bulego guztietan, adjudikaziodunak zaintza-lanak egin eta beharrezko neurriak hartuko ditu istripuak eta kalteak saihesteko; adjudikazioduna neurri horien erantzulea da eta Estatuko lege orokorrak eta Udalak emandako arauak bete behar ditu.

### **4.5. artikulua- Hondakinen kudeaketa**

Garbiketa-lanetan bildutako hondakinak poltsa itxietan gordeko dira berehala, eta gero edukiontzietan utziko dira, hondakinak birziklatzeko behar bezala sailkatu ondoren.

Legeak babestutako datu pertsonalak dituen edozein inprimaki ezin izango da aztertu edo kanpora atera. Horretarako, lizitatzailleak berariaz adieraziko du badakiela Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzera behartuta dagoela, batez ere, 12. artikuluan ezarritakoa. Gainera, lizitatzailleak tratamenduari buruzko konpromiso espezifiko bat sinatu beharko du. Adjudikaziodunak berariaz konpromisoa hartzen du bere langileak prestatzeko eta arau horietatik eratortzen diren betebeharrak haiei jakinarazteko. Horretaz gain, aurreko arauak garatzeko xedapenak aplikatuko dira, kontratu hau adjudikatzean indarrean egon direnak edo kontratuaren indarraldian indarrean egon litezkeenak, bai eta 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen erregelamenduaren arauak ere (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak garatu zuen lege hori).

Halaber, adjudikaziodunak berariaz adieraziko du badakiela Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritakoa betetzera behartuta dagoela, eta, beraz, kontratuaren indarraldian eskuratu edo ezagutzen dituen informazioak, agiriak edo gaiak isilpean mantendu beharko ditu; gainera, kontratua gauzatzean edo gauzatzearen ondorioz ezagutzen dituen datuak ezin ditzake publiko egin, ezta beste norbaiten eskuetan utzi ere, nahiz eta datuok kontratuaren epea amaitu ondoren ezagutu dituen



## **DERIOKO UDALA**

### **4.5.1. Hiri hondakinak erretiratzea**

Zabor-poltsak, jaso aurretik, itxita egon beharko dira. Poltsak ez dira estutu behar, eta kontu handiz maneiatuko dira likidorik ez isurtzeko edo objektu zorrotzekin ez ebakitzeko. Paperontzian beste poltsa bat jarriko da, ondo finkatuta. Zabor-poltsa guztiak hurbilen dagoen edukiontzian utziko dira.

Lanak amaitu ondoren, garbiketan bildutako produktuak egunero bota behar dira; horretarako, poltsak, edukiontziak edo bestelako bide egokiak erabiliko dira, garbiketaren udal ordenantzak edo udal zerbitzu eskudunek ezartzen dituzten jarraibideekin bat etorritik.

### **4.5.2. Gaikako bilketa**

Esleipendunak, posible den eraikinetan, bilgarri, paper, kartoi, beira, pila eta ehunen gaikako bilketa egingo du.

Papera, kartoia eta tratamendu berezia jaso behar duen edo birzikla daitekeen edozein hondakin eraikin bakoitzetik hurbilena dagoen edukiontzian utziko da. Halaber, plastikoak, bilgarriak, errefusa, beirak, eta halako hondakinak gaika bilduko dira bakoitzari dagokion edukiontzian, birziklatuak izan daitezten.

Gaikako bilketa udal-bulego guztietara zabalduko da.

## **4.6. artikulua- Urteko eta hileko programazioa eta txostenak**

Kontratastak, Txosten eta Lanen Antolakuntzari dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dizkio Udaleko Zerbitzu Teknikoari:

### **4.6.1. Urteko – Lanen urteko programa**

Esleipendunak zerbitzuaren hasierarekin batera eta urtero, 1. eranskineko inbentarioan zerrendatutako udal-eraikin eta -bulegoetan gauzatzeko Lanen Urteko Programa aurkeztu beharko du. Programa horretan honako hauek agertuko dira, gutxienez:

- Gauzatzeko lanen kopuru osoa. Eraikin, dependentzia edo esparruak ere zehaztuko dira, bai eta maiztasuna, gauzatzeko denbora, ordutegi banaketa eta abar ere.
- Lanak gauzatzeko urteko aroak.
- Operazio bakoitza egiteko erabiliko den ekipamendua.



## **DERIOKO UDALA**

- Aurretik aipatutako talde bakoitzean, modu iraunkorrean edo aldi baterako erabiliko diren langileak eta makineria.
- Zerbitzuaren funtzionamendu onerako esleipendunak interesekotzat hartzen duen beste edozein ohar.

Derioko Udalak urteko programazioa aurkeztuko du, jaiegunen egutegia zehaztuta, udal-erakin eta -bulegoak herritarren erabilerarako baldintza onenetan mantendu ahal izateko.

### ***4.6.2. Hiru hileroko – Hiru hileko jardute plana***

Enpresa adjudikaziodunak, lanen proiektuarekin eta urteko programarekin bat, hiru hileroko jarduketa-programa bat aurkeztuko du hiruhileko bakoitzaren azken astean. Plegu teknikoan eta Udalaren jarraibideetan oinarrituta egingo da hiru hileroko jarduketa-programa, eta bertan, hurrengo hiruhilekoan egin behar diren lanen aurreikuspenak jaso behar dira, lanen urteko programan bezala zehaztuta

### ***4.6.3. Hilero – Hilean egindako lanak eta bestelako txostenak.***

Hilero-hilero, egindako lanak zehazten dituen lan-agiri bat aurkeztu behar die kontratistak udal zerbitzu teknikoei. Lanen agiriak informazioa jaso behar du, garbiketa-lanak egin diren eraikin eta aldeei buruzkoa, eta egindako lanak ere azalduta egon behar dira. Horretaz gain, hilabete horretako garbiketa-lan bereziak, larrialdietakoak edo beste jarduketa batzuk ere zerrendatu behar dira agirian, eta jarduketak noiz egin diren jaso behar du, eta ebatzi arte hor jasota geratu behar dira.

Aipatutako lan-agiriez eta etorkizunean eska daitezkeen agiriez gain, kontratista honako hauek aurkeztu behar ditu hilero:

- **1 eranskinean** aipatzen den inbentarioak izan dituen aldaketen laburpen eguneratua.
- Erabilitako garbiketa-produktuen eta ezaugarrien agiria.
- Udal bulegoetan berriro jartzen diren kontsumigarrien eta hornigaiaren agiria.
- Aurreko hilabeteko aginduen eta berrikuspenen orriari emandako erantzuna.
- Udal eraikin edo bulego bakoitzean hurrengo hilabetean egin behar diren lanen programa, arloka banatuta.

Azkenik, txosten horiek gorabehera, Udalaren Zerbitzu Teknikoak, nahi duenean, txostena eska dezake egokituz jotzen dituen gaiei buruz. Adjudikaziodunak derrigorrean eman beharko ditu Derioko Udalak kontratuaren zerbitzuari buruz eskatzen dizkion datu guztiak.



## **DERIOKO UDALA**

### **4.6.4. Hilabete bakoitza amaitzean – Bilerak.**

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da adjudikaziodunaren ordezkaria eta Udalaren arduradun teknikoa bilduko direla hileroko, aipaturako lanen agiriaren eta hileroko txostenen inguruan hitz egiteko, eta hurrengo hilean aplikatuko den hiru hileroko jarduketaren plangintza zehaztua berrikusteko.

Hurrengo hileroko lan guztiak burutzeko, kontratista udal zerbitzuekin koordinatu beharko da, bulegoetako erabiltzeei ahalik eta arazo gutxien sortzen dieten orduetan egiteko lanak

Kasu guztietan, bileran zehaztu ez arren, hilean sortzen diren lan eta gorabeheren berri eman beharko zaie udal zerbitzu teknikoei, lanak hasi baino 48 ordu lehenago.

### **4.7. artikulua- Kontrol sistemak, arau-haustek eta erregimen zigortzailea**

Udalaren eskumena da garbiketa-zerbitzuak etengabe ikuskatzea eta kontrolatzea, eta hori egin dezake bere langileekin edo beste kontratazio baten bitartez.

Kontrolen helburua zerbitzua ondo egitea da, pleguaren baldintzak betez, hain zuzen ere, honako hauek:

- Garbiketa Zerbitzuaren kalitate ekogia lortzea eta mantentzea
- Erabiltzaileari konfiantza ematea emandako Zerbitzuan nahi duen kalitatea izaten duela

#### **4.7.1. Kontrol sistemak**

Jarduerak kontrolatzearen helburua da: eskaintzan eta plegu honetan ezarritako prestazio teknikoak betetzen direla, eragiketei, aldizkakotasunei, langile-kopuruari eta lanak gauzatzeko moduari dagokienez.

Berrikuspen horiek enpresa adjudikaziodunaren arduradunekin batera egin daitezke.

Zerbitzuak betetzen ari direla egiazta daiteke prestazioen kontrol sistema baten bitartez, Udalak ezartzen duen maiztasunaz, eta alderdi hauetan oinarrituta:

- Jardueren kontrola.
- Garbiketa-mailaren ebaluazioa.



## **DERIOKO UDALA**

Adjudikaziodunak garbiketaren kalitatearen Ikuskapen, Kontrol eta Ebaluazio Plana aurkeztu beharko du bere eskaintzan; plan horrek garbiketaren kalitatearen ebaluazioa egiteaz gain, kalitatearen adierazle gisa balio du aurrerago aipatuko den Ikuskapen Aktarako. Planak datu hauek, gutxienez, jaso behar ditu:

- Eremu bakoitzeko garbiketa-maila eta emandako azken balorazioa, eta bai maila hori mugatzeko erabili diren adierazleak.
- Langileen presentzia kontrolatzeko sistema.
- Ikusitako akatsak, horien garrantzia eta izan daitezkeen arrazoiak.
- Akatsak zuzentzeko har daitezkeen neurriak, hartuko den konpromisoarekin eta eta gauzatzeko epearekin.

Langileen presentziaren kontrolari dagokionez, egunero egingo da lantoki bakoitzeko langileen presentziaren kontrola. Langileak lanera ez agertzea ere hilerok kontrolatuko da, eta langile horiek ordezten dituztenek kalifikazio berdina dutela frogatu beharko du adjudikaziodunak. Kasu honetan, eta langile berriak kontratatu behar dituen guztietan ere, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Derion sortutako langabeen lan-poltsako jendea kontratatuzeko.

Lizitatuzaileek enpresaren organigrama aurkeztuko dute beren eskaintzan, eta kontratuari atxikitako langileen plantilaren egitura hierarkikoa definitu behar dute. Horren guztiaren helburua da ikustea plantila, lanpostuak eta giza baliabideen banaketa eta koherentzia egokiak diren.

Derioko Udalak izendatutako pertsonak egingo dute balorazioa, ikuskapen-ibilbide batzuen arabera, eta ikuskatu behar diren lokalak edo bulegoak jaso behar dira ikuskapen-ibilbide horietan.

### **4.7.2. Ikuskatzea eta aktak**

Derioko Udalak izendatutako pertsonak egingo dute balorazioa, ikuskapen-ibilbide batzuen arabera, eta ikuskatu behar diren lokalak edo bulegoak jaso behar dira ikuskapen-ibilbide horietan.

Adjudikaziodunak, izendatzen duen ordezkariaren bidez, eskubidea izango du funtzionarioak edo kontratatutako organoak egiten duen kontrola ikusteko.





## **DERIOKO UDALA**

Berrikuspenen ondorioz, kalitate-aktak egingo dira, eta gero, kalitateari buruzko txosten batean laburtuko dira. Txosten horretan, garbiketaren kalitatearen Ikuskapen, Kontrol eta Ebaluazio Planaren datuak eta adierazleak eman behar dira

Kalitate aktak Udal Zerbitzu Teknikoak eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak sinatu behar ditu; egindako akten kopia bat eman beharko zaio ordezkari horri.

### ***4.7.3. Akatsak kontratua betetzean eta erregimen zigortzailea***

Kontratua gauzatzean akatsak egiten ari direla ulertuko da, Udalaren zerbitzu teknikoek atal honetan azaldutako arau-hausteak egiten ari direla uste badute.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, eta txosten tekniko batek deskribatuko du egindako arau-haustea eta arau-hauste motaren sailkapena justifikatuko du. Txosten juridikoa egingo da, aipatutako txosten teknikoaren arabera, dagokion zehapena ezartzeko.

Horren ondorioz, zerbitzuaren adjudikaziodunak arau-haustea eginez gero, zehapena bete beharko du. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:

#### 1. Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arina egiteagatik, adjudikazioaren zenbatekoaren % 3ko isuna gehienez jar daiteke. Honako hauek dira arau-hauste arinak:

- Zerbitzua ematen duten pertsonak uniformerik ez janztea edo modu zantarrean janztea.
- Begirunerik ez erakustea publikoari, udal langile edo teknikariei eta, oro har, herritarrei.
- Uniformeak erabiltzea udaletxean egiten duten lana ez den beste jarduera batzuetarako.
- Garbiketaren egoera ona ez denean eta garbiketa-lanak txarto garatzen ari direnean, hori jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
- Garbiketako langileen artean eztabaidak eta borrokak eragitea, garbiketa-lanak egiten ari diren bitartean.

#### 2. Arau-hauste larriak:



## **DERIOKO UDALA**

Arau-hauste larriak egiteagatik, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5eko isuna gehienez jar daiteke. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

- Hiru arau-hauste arin egiten direnean, laugarrena arau-hauste larritzat joko da.
- Kontratazio honen arau orokorrak eta langileek garbiketa-lana egiten duten lokal eta zerbitzuen arauak ez betetzea.
- Zerbitzu bat arrazoirik gabe eta aurretik jakinarazi gabe aldatzea.
- Langileek hiru hileroko jarduketa-programan (hilero berrikusten da) ezarritako maiztasuna ez betetzea.
- Erregaiak eta garbiketa- nahiz higiene-produktuak berriro ez jartzea.
- Lan espezifiko bakoitzerako eskatu eta eskainitako materiala ez den besteren bat erabiltzea.
- Baliabide mekanikoak, eskuzkoak... egoera txarrean egotea, erabilitako materiala nahikoa ez izateagatik, akastuna izateagatik edo bat ere ez egoteagatik.
- Langileek agindutako lana ez egitea edo txarto egitea.
- Plegu honetan deskribatu diren lan batzuk hasi eta ez amaitzea.
- Lanak kontratu honetan eskatzen den kalitatekoak ez izatea.
- Garbiketaren egoera ona ez denean eta garbiketa-lanak txarto garatzen ari direnean, kalitateari, langileei eta baliabideei dagokienez, hori jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
- Garbiketako langileen arteko eztabaidak eta borrokak garbiketa-lanak egiten ari diren bitartean.
- Begirunerik ez erakustea publikoari, udal zerbitzu teknikoan ikuskatzaileei eta agintaritzako agenteei.
- Ekipoak erabiltzea kontratutako zerbitzuak ez diren lanetarako.
- Enpresa adjudikaziodunak jarritako makineria, prestakuntza-plana eta lan-arriskuen prebentzioko alderdiak kontratu honetan ezarritakoak ez izatea.




## **DERIOKO UDALA**

### 3. Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak esleipenaren zenbatekoaren 100eko 10 batera arteko isunekin zigortuko dira. Honako hauek dira:

- Hiru arau-hauste larri egitea arau-hauste oso larritzat hartuko da.
- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak ez betetzea.
- Datuen babesari lotutako dokumentu eta paperen birziklatze eta suntsipenerako segurtasun-neurriak ez betetzea. Horiek birziklatu edo suntsitu arte erantzukizuna mantenduko da.
- Tresneria emakidarenak ez diren bestelako lanak egiteko erabiltzea, edozein motatako kontraprestazio edo ordainketak onartuz.
- Kontrol estatistikoaren bidez ikusitako prestazioa oso eskasa izatea.
- Zuzendutako kontrolaren bidez ikusitako prestazioa oso eskasa izatea.

Halaber, arau-hauste larri bat edo gehiago egiteak kontratua suntsiaraztea ekar dezake.



**DERIOKO UDALA**

## **V. ATALA**

### **LANGILEAK ETA KONTRATUA OSATZEN DUTEN BESTELAKO ELEMENTUA**

#### **5.1. artikulua- Garbitzaileak**

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu, kopuruari dagokionez eta plegu honetan zehaztutako lanak egiteko trebakuntza nahikoarekin. Udaleko Zerbitzu Teknikoen iritziz baldintzak betetzen ez dituzten langileak ordezkatu beharko dira.

El Indarrean sartzeko momentuan, kontratistak langileen kontratua izan beharko du. Derioko Udalak hala eskatuta, kontratistak langileen zerrenda aurkeztu beharko du, haien kategoria, antzinasuna eta lana garatzeko lekua eta ordu kopurua zehaztuz. Halaber, ezin izango dute langile eza aitzakia gisa erabili Derioko Udalak espresuki agintzen dizkien lanak edo eskainitako zerbitzuak eteteko edo atzeratzeko. Beraz, une oro exekuziorako beharrezkoak diren langileak izan beharko dituzte.

Garbiketako langile guztiak, ordezkoak barne, egokitasunez jantziak (uniformearekin) eta txukun joan beharko dira. Horretaz gain, lanean higiena eta segurtasuna bermatzeko beharrezko materiala eta identitate-txartela eraman beharko dute beti.

Gainera, adjudikaziodunak bere karguko langile guztiak behar bezala aseguruak izan beharko ditu, indarrean dagoen Gizarte Segurantzza eta Lan Eskubideen araudiari jarraikiz.

Garbiketako langileek zerbitzua eman beharko dute urteko lanegun guztietan, eta haien zerbitzuak beharrezkoak diren egoeretan, lanegunak ez badira ere (ur-ihesak, uholdea, sutea, etab.). Beraz, hobekuntza ikastaro, baimen, gaixotasun eta oporraldietan, besteak beste, enpresak langile horiek ordezkatu beharko ditu, antzeko trebakuntza duten profesionalekin.

Horregatik, kontratistak zerbitzua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren langileak izango ditu une oro, eta garbiketa-lanetan egiaztatutako gutxieneko esperientziarekin eta honako kasu hauetan langileak ordezkatuak ditu: oporraldiak, baimenak, bajak, sindikatuko baimenak, etab. Gainera, ordainketak, pizgarriak eta karga sozialak abonatu beharko ditu, indarrean dauden legeekin bat etorrira.

Adjudikaziodunak kontratistak hautatuko dituen langileen zerrenda aurkeztuko du, kategoria ezberdinetan kontratu honen xede diren lanak betetzeko. Zerrenda hori nominala izan behar da langile guztientzat. Gainera, eguneratua egon beharko du beti,



## **DERIOKO UDALA**

eta arrazoi hori dela medio, adjudikaziodunak alde zuzenetik jakinarazi beharko du egin nahi den edozein aldaketa, langile berriaren titulazio eta ezaugarri profesionalak zehaztuz.

Langileen zehaztasuna eskaintzan adieraziko da, lan-kategoria eta lanaldia espezifikatuz, subrogazio objektu izango baitira. Bestalde, **3. eranskinean**, kontratu honen zerbitzu xederako subrogatuko diren garbiketa-langileak adierazten dira.

Kontratatik, eskatzen zaionean, langileak ikuskatzeko eta lan bakoitzeko arduradunak identifikatzeko informazio guztia emango du.

Zerbitzu honek ez du berekin ekartzen langileek funtzionario egoera izatea eta ez du inolako lan-loturarik edo bestelakorik ezartzen Derioko Udalarekin. Lotura kontratistarekin ezarriko da, berak ordainduko ditu ordainsariak eta lan-arloko legeriatik, gizarte segurantzatik eta indarrean dauden bestelako neurrietatik eratorritako karga sozialak.

Garbiketa-zerbitzua ematen duten langileen ordainsari kostua handitzea dakarren edozein itun, akordio, hitzarmen edo lege-xedapenak ez du inolako kasuan eraginik izango Udalak enpresa adjudikaziodunari ordaindu beharreko zenbatekoan. Klausula Administratibo Berezien Pleguan ezarritakoari jarraituko zaio.


Lanak egiteko lan-istripuak saihesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira eta lanerako segurtasun-araudia beteko da. Derioko Udalak kontratista behartu ahal izango du edozein segurtasun-neurri hartzeko, betiere araudia betetzen ez dela ikusten badu. Halaber, Udala ez da segurtasun-neurrien ezagatik gertatzen diren lan-istripuen erantzule izango.

Adjudikazioduna izango da plegu honetan zehazten diren udal eraikin eta lokaletan, pertsonengan eta ondare pribatu eta publikoetan langileek sortzen dituzten kalte-galeren erantzule.

Amaitzeko, adierazi beharra dago enpresa adjudikaziodunaren langileek ez dutela inolako lan, kontratu, funtzio edo inolako izaerako harremanik edo loturarik izango Derioko Udalarekin. Enpresa adjudikaziodunak langileak horren inguruan ohartaraziko ditu eta kontratuetan auzi hori zehaztuko du.

### **5.1.1. Enpresaren ordezkaria eta erantzulea**

Adjudikaziodunak enpresaren barnean erabakitzeke ahalmena duen ordezkari bat izendatuko du talde-arduradun. Pertsona hori Derioko Udalaren aurrean langileak ordezkatzeko ditu eta ahalmena izango du erabakiak hartzeko; erabaki horiek ez dute kalterik jasango erabakitzeke gaitasun (formala edo legala) ezagatik.



## **DERIOKO UDALA**

Arduradun horrek honako ahalmen hauek izango ditu:

- Kontratataren ordezkari gisa jardungo du bere jarduera edo presentzia beharrezkoa denean; bai eta kontratuko betebeharrak betetzetik eratorritako bestelako ekintzetan, betiere kontratuaren martxa onari eta exekuzioari dagokienez.

Kontratua indarrean dagoen bitartean sortzen diren arazoak konpontzeko Administrazioari beharrezkoa dena proposatzea

Bestalde, enpresa adjudikaziodunaren organigraman atal honetan deskribatutako arduradunaren ordezkari bat zehaztuko da, oporraldi, gaixotasun, baimen, hobekuntza-ikastaro eta abarretan, erabakitzeko ahalmen-maila bera duen eta adierazi diren lanak egiteko gai den bigarren pertsona bat izateko.

Enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak telefono mugikorra eta posta elektronikoa izango ditu eta aitzakiarik gabe, plegu honetan adierazitako hileroko batzarretara eta gonbidatzen zaion bileretara bertaratuko da, zerbitzuari buruzko gaiak jorrazteko. Deialdia 24 ordu lehenago egin beharko da, edo, horren ezean, alde aurretik arestian aipatutako eta erabakitzeko ahalmen bera duen bigarren arduradunaren esku utzi beharko da. Ordezkatutako pertsona, edo horren ordezkaria (justifikatutako ez-ohiko kasuetan), zerbitzuari buruzko gaien solaskide baliodun bakarra izango da. Ordezkari horrek aintzat hartuko ditu Udaleko zerbitzuek beharrezkotzat jotzen dituzten abisu eta argibideak. Ordezkari horren kostua zerbitzuko aurrekontuaren gastu orokorren kontzeptuaren barnean dago.

Zerbitzuak irauten duen 24 orduetan zehar, ordezkaria eskuragarri egon beharko da sor daitekeen edozein gertakizun edo larrialdiri aurre egiteko. Ordezkaria eskuragarri ez badago, organigramako beste arduradun baten esku utzi beharko du lana. Kasu horretan, Udalari ere aldaketa hori jakinarazi beharko zaio, 48 ordu lehenago, gutxienez. Bigarren ordezkari horrek Udalaren oniritzia jaso beharko du.

### **5.1.2. Langileak subrogatzea**

Enpresa adjudikaziodunak esleipenaren momentuan dauden langileen subrogazioa bermatuko du, sektoreko hitzarmenek horren inguruan adierazten dutena alde batera utzita.

Derioko Udalak, bere erantzukizun sozial eta ekonomikoa betetzeko helburuarekin, kontratu honen xede den zerbitzuko enpresa adjudikaziodunari eskatzen dio eraginkortasun eta produktibitate irizpideekin bat datorren ordainsarien ikuskatze eta pertsonen kudeaketako politika gauzatzeko konpromisoa. Horrela, ordainsarien eta erosteko ahalmenaren bilakaerari dagokion atala beti egongo da



## **DERIOKO UDALA**

Langileen Ordezkaritza Legalarekin libreki negoziatu eta hitzartu daitezkeen ratio, maila edo xede zehatzak osatzearekin lotuta.

Halaber, kontratua amaitutakoan, subrogazioaren xede izan daitekeen pertsonalaren kostua ezin izango da soldata-masaren termino homogeneoetan lizitazio honetan subrogazio posibleko pertsonalaren kostua baino handiagoa izan, kontratuaren bizitzan zehar sortu diren KPlaren gehikuntzak barne; betiere, plegu honetan jasotako zerbitzuen zabaltze-arrazoiagatik justifikatuta ez badaude. Soldata-masa subrogazioaren xede den pertsonal osoaren enpresaren kostu osoa litzateke.

Subrogatzeko udal eraikin eta lokalen barrualdea garbitzeko kontratari atxikitako langileak **3. eranskinean** zehazten dira. Bakoitzaren soldata Eraikin eta Lokalen Garbiketako Sektorerako Hitzarmen Kolektiboan zehazten da.

### **5.1.3. Ausentziak eta oporrak**

Adjudikaziodunak une oro edozein absentzia estali beharko du: oporraldiak, bajak, baimenak, ordu sindikalak, formakuntza, etab. Halaber, ordezkapenak egingo dituzten pertsonen izenak jakinaraziko ditu, eta horrek ez du aurreko atalean aurreikusitako pertsona-kopurua aldatuko. Zerbitzua kalitate eta intentsitate berarekin emango da. Eta hori ez da oztopo izango, batetik, oporraldiak, eta, bestetik, lokalak jarduerarik gabe dauden garaiak, bat etor daitezen.

### **5.1.4. Langileak lokalizatzea**

Kontratastak Udalari eman beharko dizkio langile guztien izenak, telefonoak, egutegiak eta ordutegiak, bereziki zerbitzuko arduradunarenak, Derioko Udalak pertsona hori arin aurkitu ahal izateko

### **5.1.5. Langileen uniformeak, identifikazioa eta komunak**

Zerbitzua gauzatzeko kontratatutako langile guztiak erabat uniformatuak egon beharko dira, Udalak alde aurretik adostutako ereduaren arabera. Langileen jantzien kalitatea eta kantitatea Hitzarmen Kolektiboan eta Lanerako Higiene eta Segurtasun Araudiaren arabera izango da.

Gainera, langile guztiak behar bezala identifikatuak egongo dira udal bulegoetan dauden bitartean, zerbitzuen segurtasuna bermatzeko. Horretarako, une oro ikusgai egongo den txartela eramango dute.

Txartelak, enpresaren eta Udalaren anagramez gain, langilearen identifikazio datuak izan beharko ditu, izen eta argazkiarekin. Adjudikaziodunak txartel hori eman beharko die langile guztiei.



## **DERIOKO UDALA**

Bestalde, adjudikazioduna ez da langileen garbitasun, begirune eta uniformeen bateratasun ezaren, edo kontratu honen (eta beraz, Bizkaiko Lokal eta Eraikinen Garbiketa Sektorerako Hitzarmen Kolektiboan jasotako gainerako arau-hausteen) xede diren eraikinen erabiltzaileekiko tratu txar edo deskortesien erantzule izango.

Gorabehera horiek gertatzen badira, plegu honetan zehazten diren zigorrak aplikatuko dira.

### ***5.1.6. Langileak aldatzea edo gehiago izatea***

Kontratu honen xede diren klausula tekniko eta administratiboen pleguan jasotzen denaren arabera, garbiketa-zerbitzua ematen den udal eraikin edo lokalak handitzen badira, alde zuzenetik zerbitzua ematen ari diren langileen lanaldia osatzen saiatuko da, betiere bi aldeen artean adostasuna badago eta alde zuzenetik Derioko Udaleko Zerbitzu Teknikoari jakinarazi bazaio.

Derioko Udalari jakinaraziko dio, lizitazio honen ondorioetarako. Eta kontratua indarrean dagoen bitartean, aldaketa Administrazio honek espresuki onetsi beharko du. Baimen zehatz hori gabe, adjudikaziodunak proposatutako aldaketak ez du Udalaren aldetik betebeharririk ekarriko.

Beraz, justifikatutako arrazoiengatik beharrezkoa balitz plegu honen xede diren garbiketa-lanak gauzatzeko eskainitako langile-kopurua handitzea, adjudikaziodunak alde zuzenetik behar hori justifikatzen duen txosten edo azterketa bat gauzatu du. Bertan justifikatuko da ezin dela zerbitzua eskaini dagoen langile-kopuruarekin, eta Udalari baimena eskatuko zaio.


Bestalde, Udaleko Zerbitzu Teknikoaren iritziz erabilitako baliabideak nahikoak ez badira, adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio dagokion neurrian kopurua handitzeko. Kasu horretan, langileen esperientzia eta prestakuntzaren hobekuntza baloratuko dira. Gainera, enpresa adjudikaziodunak esleitutako lanak egiteko langile berriak kontratatuzeko beharra duen kasuetan, honako konpromiso hau hartuko du

Azkenik, kontratua indarrean dagoen bitartean lanpostuen zerrendan aldaketaren bat egiteko (betiere arrazoiak erretiroa, heriotza, borondatezko baja, kaleratzea, aldi baterako ezintasuna, ezintasun iraunkorra eta abar badira), esleipendunak idatzi bidez jakinaraziko dio auzia Udaleko Zerbitzu Teknikoari. Jakinarazpen horretan honako datu hauek gehitu beharko dira: nortasuna, NANA, kontratu mota, antzintasuna eta beharrezkotzat jotzen den guztia.

Ordezkatze guztiak gutxienez prestakuntza bera duten pertsonak egingo dituzte, eta ordezkatuaren ordutegi berean.

### ***5.1.7 Langileen formakuntza, segurtasuna eta higiena***





## **DERIOKO UDALA**

Esleipendunak bermatu beharko du zorrozki betetzen direla lantokietako higie-ne eta segurtasunari eta beharrezkoak diren osasun-zerbitzuei dagokienez indarrean dauden xedapenak.

Bereziki honako hauei jarraitu beharko zaie: lantokietako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua; laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko (1995-11-10eko BOE) 31/1995 Legea; eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, edo indarrean dagoen eta aplikatzekoa den legeria.

Halaber, esleipendunak antolatu beharko ditu kontratuaren zerbitzura dauden langileak etengabe eguneratzeko behar diren formazio-jarduerak.

Lizitatuzaileak bere eskaintzan honako hauek aurkeztuko ditu: kontratu honetarako lokal eta eraikinen garbiketa-jarduerari dagokion Segurtasun eta Osasun Plana, arriskuen ebaluazio generikoa, lanpostu bakoitzaren araberrako ebaluazio espezifikoa eta hirugarrenen kalteen analisisa

Dokumentuan enpresaren Segurtasun-arduradunaren izendapena agertu beharko da, bai eta Segurtasun eta Osasun arloko koordinatzailea, kontratuaren exekuzio epean zehar

Adjudikaziodunak Lan Arriskuen Prebentziorako Legeko artikulua (31/1995 Legea) eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia (39/1997 ED) bete beharko ditu:

- Enpresan indarrean dagoen planari dagokion dokumentazioa izan beharko du (LAPLko 15., 16., 17. eta 23. artikuluei jarraikiz): kontratuaren xede diren lanekiko elkarrekotasuna aztertzea ahalbidetuko duten teknika operatiboak, prozedurak, protokoloak, lantaldeak, etab
- Langileen informazio eta formakuntzari dagozkien eginkizunak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak (LAPLko 18. eta 19. artikulua).
- Enpresako Prebentzio Zerbitzuen ordezkariaren izendapena, kontratazio honen xede diren lanei dagokienez.

### **5.2. artikulua- Garbiketa lanen ordutegia**

Garbiketa-lanak, orokorrean, **1. eranskinean** eraikin bakoitzerako zehazten den ordutegian gauzatuko dira; betiere langile edo erabiltzaileen gehiengoak lokala erabiltzen amaitu badu.



## **DERIOKO UDALA**

Garbitu beharreko lokal eta eraikinak zabaltzeko eta ixteko, Udaleko arduradunak emango dizkien jarraibideak beteko dituzte, instalazioen segurtasuna bermatzeko xedearekin.

**1. eranskineko** taulatan zehaztutako garbiketa-ordutegiak orientagarriak dira, eta beraz, aldaketak egon daitezke langileek edo erabiltzaileek ematen dieten erabileraren arabera. Derioko Udalak eman daitezkeen aldaketak jakinaraziko dizkio enpresa adjudikazioduneko arduradunari.

Garbiketa-lanak lanaldiaren hasierarako eta udal instalazioak herritarrentzat zabaltzen direnerako eginak egon beharko dira, langile eta erabiltzaileek dagozkion baldintzetan aurki ditzaten

Hala ere, kontratuaren xede diren eraikin bakoitzaren gunek, sektore, bulego, eta abarretan, antolakuntza, banaketa eta erabilerako aldaketak sortu ahal izango dira, behar ezberdin edo berriei aurre egin ahal izateko. Beraz, kontratazio-organoaren eta Udalak izendatutako arduradunaren jarraibideak beteko dira.

### **5.3. artikulua- Hornidura**

Adjudikaziodunak honako produktu hauek jarri eta ordezkatu beharko ditu zerbitzua ematen den lokal guztietan:

- Paper higienikoko bobinak.
- Eskuak lehertzeko paperezko oihalak.
- Xaboi likidoa.
- Euritakoei zorroak jartzeko Kultur Birika eraikinean dagoen makinaren poltsak.
- Alfonbrak **1. eranskinean** zerrendatutako eraikin guztietako sarreretan (11 guztira): adjudikaziodunak alfonbra horiek hornitu beharko ditu zerbitzua hasterakoan.
- Aire-gozagarriak eta bakterizidak **1. eranskinean** zerrendatutako eraikin guztietako komunetan.
- **!**



## **DERIOKO UDALA**

Adjudikaziodunak bermatuko du paper higieniko nahikoa hornitzen dela, eraikin guztietan eskaintzen dituen zerbitzuak osorik estaltzeko. Halaber, horien ordezkatzeko jarraituaren erantzukizuna izango du, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Ikastetxean, ikasleei zuzendutako paper higienikoaren hornidura eta erabilera Zuzendaritzak izendatuko arduradunak kontrolatuko du.

Adjudikaziodunak xaboi-likidoa (edo gela) hornitzeaz gain, egun dauden eta etorkizunean gehitzen diren euskarrietan jarriko du.

Emakumezkoen komunitateko edukiontzi higienikoei dagokienez, adjudikaziodunak horien mantentze, garbiketa eta desinfekzioa gutxienez 15 egunean behin egiten dela bermatuko du.

Po Bestalde, euritakoei zorroak jartzeko Kultur Birika eraikinean dagoen makinari dagokionez, adjudikaziodunak horren mantentzea eta garbiketa bermatuko ditu.

### **5.4. artikulua- Materiala eta makinak**

Zerbitzu horiek emateko beharrezkoak diren makineria, garbiketako material eta tresna guztien hornidura adjudikaziodunaren kontura egingo da eta dagokion Administrazioaren homologazioa izan beharko dute. Baliabide guztiak plegu honen xede diren zerbitzuak emateko besterik ez dira erabiliko; beraz, ezin izango dira beste edozein kasutan erabili, Zinegotziza Ordezkariaren agindu zehatzik ez badago.


Ura eta energia elektrikoa, zerbitzuak emateko beharrezkoak, dohainik emango zaizkio adjudikaziodunari.

#### **5.4.1. Materiala erabiltzea**

Adjudikaziodunak une oro eskuragarri izan beharko du zerbitzuak emateko beharrezkoa den materiala. Beraz, egokitzen jotzen duen ordezkoko ekipamendu guztia izango du. Proposamena Proposatutako Erreserben Planean adierazi beharko du.

#### **5.4.2. Garbiketa-materialentzako lokalak**

Derioko Udalak adjudikaziodunari jakinaraziko dizkio produktuak, makineria, garbiketako materialak gordetzeko esparruak eta garbiketako langileentzako aldagelak



**DERIOKO UDALA**

## **VI. ATALA**

### **LANAK IKUSTATZEA ETA KALITATEA KONTROLATZEA**

#### **6.1. artikulua- Lanak ikustatzea**

Derioko Udaleko titulartasuna duten dependentzia eta eraikinen barnealdeko garbiketa-lanen Ikuskatze Fakultatiboko zuzendaritza eta kontrataren xede diren bestelako lan eta hornidurak Udaleko Zerbitzu Teknikoak gauzatuko ditu; eta adjudikaziodunari jakinaraziko zaio zein pertsonak izan beharko duten harreman zuzena berarekin. Zerbitzu horrek esleitutako zerbitzuak emateko modua ikuskatu eta kontrolatuko du une oro, Plegu honen zehaztasunen arabera.

Adjudikaziodunak Zerbitzuko Ikuskatze Fakultatiboko zuzendaritzak jakinarazten dizkion kontratatutako lanak egiteko denbora, modua, ordena eta motari dagozkien xedapen guztiak bete beharko ditu.

. Ikuskatze zerbitzua gauzatzeko teknikarien eskumenak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Lanak bere garaian eta egokiro egiten direla kontrolatzea.
- Pleguan eta sor daitezkeen adjudikaziodunaren ondorengo konpromisoetan adierazitako guztia betetzen dela kontrolatzea, langileen prestakuntza eta kopuruari dagokienez.
- Erabakitzea baliabide, makinaria, kontsumigarri eta lanak egiteko erabiliko den gainerako ekipoak plegu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen.
- Lantaldeak osatzen dituzten langileak agertzen direla eta bertan jarraitzen dutela zaintzea. Halaber, haien inguru, jantzi, gaitasun, lanerako gogo eta jarrerak, gauzatu behar duten lanaren garrantzi, leku eta mailak eskatzen dituzten baldintzak betetzen direla ikuskatu beharko du.

#### **6.2. artikulua- Lanak zuzentzea**

Adjudikaziodunak astero eta adierazten diren orduetan, Derioko Udaleko enpresa-arduraduna eraman beharko du, zerbitzua hobeto emateko beharrezkoak diren jarraibideak jasotzeko. Halaber, 24 orduko epean Udalean agertzea eskatu ahal izango zaio, bere presentzia beharrezkoa dela uste bada.

Hilero eta enpresak aurkeztutako parteen arabera, enpresa adjudikaziodunaren arduradunak eta Udaleko Zerbitzu Teknikoak haien exekuzio-maila eta -kalitatea egiaztatuko dituzte. Adjudikaziodunaren ordezkaria, edo ahalmen maila bera duen



## **DERIOKO UDALA**

horren ordezkaria, Udalak izendatutako teknikariarekin bilduko da, garbiketa-zerbitzuaren bilakaera, berrikuntzak, iradokizunak eta kexak aurkezteko eta lantaldeen gidalerroak markatzeko eta egin beharreko jarduerak proposatzeko. Bilera honetan hauek ere eztabaidatuko dira: zerbitzu-mailak (xx. Artikulua) eta hurrengo hilabeteko planifikazioa, esleipendunak emandako hiruhileko Jarduera Plangintzan.

Zerbitzuaren aldaketa-proposamenak Udaleko Zerbitzu Teknikoari helaraziko zaizkio, eta horrek erabakiko du, besterik ezean. Zerbitzuaren aldaketaren bat erabaki behar bada, kontratistak 7 egun naturaleko epea izango du agindu zaizkion aldaketak gauzatzeko.

Udaleko Zerbitzu Teknikoak hala eskatzekotan eta alde zuzeneko programazioarekin, eraikin, bulego edo esparru berriak gehitu ahal izango dira, **1. eranskinean** zerrendatutakoekin alda daitezkeenak, betiere antzeko ezaugarriak badituzte.

Amaitzeko, aipatu beharra dago udalerrian sor daitezkeen ezohiko egoeretan edo ezinbesteko arrazoiengatik (suteak, uholdeak, eta beste), adjudikaziodunak proposamenean eskainitako eta eskuragarri dituen baliabide eta laguntza guztia emango du, eta Udalari ez zaio inolako kargurik ezarriko, zerbitzuaren mugak gainditzen dituzten jarduera-guneak badira ere.



**DERIOKO UDALA**

## **VII. ATALA**

### **ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ASEGURUA.**

#### **7.1. artikulua- Erantzukizun zibilaren aseguru**

Adjudikazioduna hirugarren pertsoneri edo ondasunei gertatutako kalte-galeren erantzule izango da, plegu honen **VI. atalean** ezarritakoetatik eratorriena ere. Gauzatzeko lanak behar bezala seinaleztatuko dira eta betetzen direla bermatuko da, publikoarenganako begirunea gordez.

Adjudikaziodunak, eman daitezkeen kalteak bermatzeko, erantzukizun zibileko aseguru izango du, gutxienez 2.000.000 eurokoa ezbehar bakoitzeko. Aseguru horrek kontratista, teknikari eta bere menpeko langile, Udalari eskatu ahal zaizkion langile eta lanen Zuzendaritza Teknikoaren ardura duten langile fakultatiboen erantzukizun zibila estaliko du, plegu honetan adierazten diren lanengatik sor daitezkeen edozein gertaerari edo hirugarrenen kalteei erantzun ahal izateko.

Enpresako aseguru-polizaren kopia aurkeztu beharko du.

## **VIII. ATALA**


### **LANEN INBENTARIOA URTEKO PROGRAMA.**

#### **8.1. artikulua- Inbentarioa eta programa**

Adjudikaziodunak, sei hilean behin, **1. eranskinean** atxikitako inbentarioa eguneratu beharko du, kontratu honen xede diren eta garbiketa-zerbitzuak eragiten dien eraikinak, bulegoak, esparruak eta abar handituz edo murriztuz.

Lizitatuzaileak, urtero, **1. eranskineko** inbentarioaren eta eranskin horretan aurreikusitako jardueren maiztasunaren arabera, egiteko lanen Urteko Programa bat egingo du. Bertan, honako hauek agertu beharko dira, gutxienez:

